



Nafarroako Herri Kirol Federazioa
Gindal Ibiltokia, 1 – Behea 31791 SUNBILLA
Tel: 948 450900 / 622 368428
www.herrikirolaknafarroa.org

NAFARROAKO HERRI KIROL JOKOAK (Proba Konbinatua eta Sokatira)

Nafarroako Kirol Jokoak (Proba konbinatua eta Sokatira 8x8) 2.023ko martxoaren 5etik apirilaren 2ra ospatuko dira.

Guztira 5 jardunaldi jokatuko dira:

Lehen jardunaldia: Martxoaren 5ean (11:00) igandea

Bigarren jardunaldia: Martxoaren 12an (11:00) igandea

Hirugarren jardunaldia: Martxoaren 19an (11:00) igandea

Laugarren jardunaldia: Martxoaren 26an (11:00) igandea

Finala: Apirilaren 2an (11:00) igandea

Izena emateak Nafarroako Herri Kirol Federazioan egin behar dira urtarrilaren 28a baino lehen:

Telefonoak: 948 450900 / 622 368428

Email: info@herrikirolaknafarroa.org

Oharra: Kirolaren Institutuak garraioa eta antolatzen diren jardunaldien kostoa bere gain hartzen du.

BALDINTZAK

Parte hartu ahal izateko, taldeak bete beharreko baldintzak:

- Kirol Elkarte bezala erregistratua egotea
- Planteatzen diren kategorietan parte hartzea
- Taldea osatzen duten kirolariak Nafarroan eskolatuak egotea edo bizilekua Nafarroan izatea
- Txapelketa hasi aurretik 90 euroko fiantza bat jartzea
- Kirolari bakoitzeko 7 euroko inskripzio-kuota bat ordaintzea
- Taldeko monitore, entrenatzaile eta laguntzaileek, Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatiboa edukitzea.
- "Babes delegatua" izendatzea (Haurrak eta nerabeak indakeriaren aurrean babesteari buruz, ekainaren 4ko Lege Organikoak dioena betetzeko).
- Kirol jardueretan presentzia fisikoa izan behar duten pertsona guztiek (begiraleak, entrenatzaileak eta boluntarioak) egiaztatu beharko dute lehen sorospenteko prestakuntza dutela edo prestakuntza hori egiteko moduan egon beharko dutela NKJen edizio honetan.
- Taldeetako entrenatzaileek frogatu beharko dute hasierako mailako ikastaroa behintzat egina dutela. Ezinezkoa bada, entrenatzaile tituludun baten babesaren pean egon beharko dute, eta NKJen XXXVI. edizioan zehar Kirolean hasteko prestatzaileentzako ikastaroa egin beharko dute

KATEGORIAK

Nafarroako Kirolaren Institutuarekin batera urtero antolatzen diren Kirol Joko hauetan bi modalitatetako txapelketak jokatzen dira: Sokatira eta Proba Konbinatua.

Txapelketa hauetan taldeka hartu behar da parte (talde mistoak).

Guztira hiru kategoria antolatuko dira:

- Kimu Maila (2011-2012 urteetan jaiotakoak) * Konbinatuan bakarrik
- Haur Maila (2009-2010 urteetan jaiotakoak)
- Kadete maila (2007-2008 urteetan jaiotakoak)



Nafarroako Herri Kirol Federazioa
Gindal Ibiltokia, 1 – Behea 31791 SUNBILLA
Tel: 948 450900 / 622 368428
www.herrikirolaknafarroa.org

KATEGORIA BAKOITZEAN EGIN BEHARREKO PROBAK

KIMUAK

PROBA KONBINATUKO LANAK (3 txanda):

PROBA	PARTAIDE KOPURUA	EGIN BEHARREKO LANA
Lokotx biltzea	1	8 kozkor, metro bateko tartean jarrita
Txingak	1	80 m. 3 kg.ko txingekin (2 joan-etorri 20 metrotako zatian)
Zakulariak	3	80 m. 6 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	160 metro (bi buelta plazari)

**** Kimuek ez dute parte hartuko Sokatiran**

HAURRAK

PROBA KONBINATUKO LANAK (3 txanda):

PROBA	PARTAIDE KOPURUA	EGIN BEHARREKO LANA
Lokotx Biltzea	1	10 kozkor, metro bateko tartean jarrita
Txingak	1	80 m. 5 kg.ko txingekin (2 joan-etorri 20 metrotako zatian)
Zakulariak	3	80 m. 10 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	160 m. (2 itzuli)
Arpana	2	70 zm.ko 2 korte

SOKATIRAKO PISUA: 480 kg.

KADETEAK

PROBA KONBINATUKO LANAK (3 txanda):

PROBA	PARTAIDE KOPURUA	EGIN BEHARREKO LANA
Koxkoak	1	12 kozkor, metro bateko tartean jarrita
Txingak	1	60 m. 10 kg.ko txingekin (2 joan-etorri 15 metrotako zatian)
Zakulariak	3	80 m. 13 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	240 m. (3 itzuli)
Arpana	2	70 zm.ko 3 korte

SOKATIRAKO PISUA: 540 kg.